Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko martxoaren 5a, osteguna — 43 — Jueves, a 5 de marzo de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Jendaurrean jartzearen iragarkia. Behin betiko onarpena*

Hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa ematea arautzen duen tributuz kanpoko ondare-prestazio publikoaren Ordenantza Orokorrari hasierako onarpena emateko Udalbatzak 2025/12/18an egindako bilkuran hartutako erabakia, jendaurrean jarri da hogeita hamar eguneko epean, iragarkia 2025/12/26ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, aztertu ahal izateko eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, eta udal idazkaritzak emandako ziurtagirian jasota dagoen erreklamazioa edo iradokizuna ez dela izapidetzeko onartu erabakita, behin betiko onartutzat jotzen da akordio hori, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera. Beraz, argitaratu egiten da, eta honela dio hitzez hitz:

*«Hiri-garraio kolektiboko zerbitzu publikoa emateagatiko tributuz kanpoko ondare-prestazio publikoa arautzen duen Ordenantza.*

*1. artikulua. Oinarria eta izaera.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, 20.4 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, Udal honek ezartzen du hiri-garraio kolektiboko zerbitzu publikoaren ondoriozko ondare-prestazio publiko ez-tributarioa, ordenantza honen bidez arautuko dena.

*2. artikulua. Xedea.*

1. Ordenantza honen xedea da hiriko garraio kolektiboaren zerbitzua emateagatiko tributuz kanpoko ondare-prestazio publikoak arautzea.

2. Zerbitzu hori zeharka kudeatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzan zerbitzu-kontratu baten bidez.

*3. artikulua. Ordaintzera behartuak.*

Ondare-prestazioa ordaintzera behartuta daude zerbitzua eskatzen edo erabiltzen dutenak.

*4. artikulua. Ordaintzeko betebeharra.*

Ordaintzeko betebeharra zerbitzua eskatzen edo ematen hasten denean sortzen da.

*5. artikulua. Tarifa.*

Hondarribiko hiri-autobus zerbitzuaren tarifa-taula Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Mugi sistemaren tarifa-sistemak zehaztuko du.

Indarrean dagoen tarifa-taularen ezaugarriak eranskinean zehazten dira.

Tarifa-taula hori eguneratuz gero, alkatetzari ahalmena ematen zaio, ebazpen bidez, eranskina aldatzeko eta Gipuzkoako AL-

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Anuncio de exposición pública. Aprobación definitiva*

Habiéndose expuesto al público el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación, en sesión de 18/12/2025 de aprobación inicial de la Ordenanza General de prestación patrimonial pública no tributaria reguladora de la prestación del servicio público de transporte colectivo urbano, por plazo de treinta días, a contar desde el día siguiente a la inserción del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa que tuvo lugar con fecha 26/12/2025, para que el mismo pudiera ser examinado y poderse presentar las reclamaciones y sugerencias que se considerasen oportunas.

Y resultando que, finalizado el referido plazo de exposición al público, la reclamación o sugerencia presentada, que consta en el certificado emitido por la Secretaría municipal, no se ha admitido a trámite, se considera definitivamente aprobado dicho acuerdo de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, por lo que se procede a su publicación, y que es del siguiente tenor literal:

*«Ordenanza reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por la prestación del servicio público de transporte colectivo urbano.*

*Artículo 1. Fundamento y naturaleza.*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, este Ayuntamiento establece la prestación patrimonial pública no tributaria derivada de la prestación del servicio público de transporte colectivo urbano, que se regirá por la presente Ordenanza.

*Artículo 2. Objeto.*

1. El objeto de esta ordenanza es regular las prestaciones patrimoniales públicas de carácter no tributario por la prestación del servicio de transporte colectivo urbano.

2. Dicho servicio se gestiona de forma indirecta mediante un contrato de servicios que conlleva prestaciones directas a favor de la ciudadanía previsto en la Ley de Contratos del Sector Público.

*Artículo 3. Obligados al pago.*

Están obligados al pago de la prestación patrimonial quienes soliciten o utilicen el servicio.

*Artículo 4. Obligación de contribuir.*

La obligación de contribuir nace cuando se solicite o se inicie la prestación del servicio.

*Artículo 5. Tarifa.*

El marco tarifario del servicio urbano de Hondarribia vendrá definido por el Sistema Tarifario del Sistema Mugi de la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa.

Las características del marco tarifario vigente se detallan en el anexo.

En caso de actualización de dicho marco tarifario, se faculta a la alcaldía para, mediante resolución, modificar el anexo y dar

EK\CV GAO-I-2026-01079

dizkari Ofizialean, webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean argitara emateko.

*6. artikulua. Ordaintzeko modua.*

1. Dagokion garraio-titulua ordainduta.

2. Udalak onartutako baliozko edozein titulu erabiliz.

*7. artikulua. Zenbatekoak itzultzea.*

Ordaintzeko betebeharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa ematen ez bada, ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko da.

*8. artikulua. Erabiltzeko zehaztapenak eta baldintzak.*

Erabiltzaileek txartel bakarra erabiltzeko baldintzak, Hondarribiko bidaiarien hiri garraio publikoan baliozkoa den ordainbide gisa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzarrak onartzen dituen baldintza orokorrek arautuko dituzte.

Eta erabiltzaileen eta zerbitzua kudeatzen duen erakunde kontratistaren arteko harremanak, garraio-zerbitzu publikoa ematetik eratorriak, bidaiarien hiriko garraio publikoko zerbitzuari aplikatu beharreko araudiaren arabera arautuko dira.

*Xedapen gehigarria.*

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen tokiko araugintza-ahalari buruzko lehen xedapen gehigarriaren arabera, Alkateari edo, hala badagokio, gobernu-batzarrari ahalmena ematen zaio, arau-xedapen honetan sar dezan nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio esklusiboa den edozein aldaketa, baldin eta aldaketa horiek betekizunak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Hori berariaz adieraziko da, eta berehala emango zaio horren berri osoko bilkurari, berrets dezan.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onarpena Gipuzkoako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igaro ondoren (70. art.), eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetu arte.

ERANSKINA

TARIFA: 3. HIRIBUSA

| *Garraio-titulua* | *Kuota € (BEZ % 10 barne)* |
|---|---|
| Bidaia arrunta | 1,45 |
| Mugi anonimoa | 0,58 |
| Mugi txartel personalizatua (gazte txartela ezik). 1-20 bidaia | 0,44 |
| Mugi txartel personalizatua (gazte txartela ezik). 21-50 bidaia | 0,36 |
| Mugi txartel personalizatua (gazte txartela ezik). 51 bidaia edo gehiago | 0,09 |
| Mugi gazte txartela (15-25 urte bete arte). 1-20 bidaia | 0,37 |
| Mugi gazte txartela (15-25 urte bete arte). 21-50 bidaia | 0,30 |
| Mugi gazte txartela (15-25 urte bete arte). 51 bidaia edo gehiago | 0,00 |
| Gauekoa | 2,10 |

Mugi eta Lurraldebus txartelak Mugi sistemaren barruan daude. Biek onura berberak eskaintzen dituzte eta, beraz, ez da

publicidad en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en la página web y tablón de anuncios del ayuntamiento.

*Artículo 6. Forma de pago.*

1. Mediante el abono del correspondiente título de transporte.

2. Mediante utilización de cualquier título válido admitido por el Ayuntamiento.

*Artículo 7. Devolución de importes.*

Cuando por causas no imputables al obligado al pago, el servicio público no se preste, procederá la devolución del importe pagado.

*Artículo 8. Términos y condiciones de uso.*

Los términos y condiciones de uso, por parte de las personas usuarias del billete único, cómo medio de pago válido en el transporte público colectivo urbano de Hondarribia, se regirán por las condiciones generales que apruebe la Asamblea de la Autoridad Territorial de Transporte.

Y las relaciones entre las personas usuarias y la entidad contratista gestora del servicio, derivadas de la prestación del servicio público de transporte, se regirán por la normativa que resulte de aplicación al servicio de transporte público urbano de viajeros.

*Disposición adicional.*

De acuerdo con la Disposición adicional primera sobre la potestad normativa local de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se habilita al alcalde o alcaldesa o, en su caso, a la junta de gobierno, para que inserte en esta disposición normativa cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de requisitos o adecuación automática de cuantías o porcentajes, lo cual se hará constar expresamente, y de ellas se dará cuenta inmediatamente al pleno a efectos de su ratificación.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor, una vez publicada su aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de 15 días hábiles previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local (art. 70), permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa.

ANEXO

TARIFA: URBANO 3

| *Título de transporte* | *Cuota € (IVA 10 % incl.)* |
|---|---|
| Billete ocasional | 1,45 |
| Mugi anónima | 0,58 |
| Tarjeta Mugi personalizada (excepto tarjeta gazte). 1-20 viajes | 0,44 |
| Tarjeta Mugi personalizada (excepto tarjeta gazte). 21-50 viajes | 0,36 |
| Tarjeta Mugi personalizada (excepto tarjeta gazte). 51 o más viajes | 0,09 |
| Tarjeta Mugi gazte (15 hasta cumplir 25 años). 1-20 viajes | 0,37 |
| Tarjeta Mugi gazte (15 hasta cumplir 25 años). 21-50 viajes | 0,30 |
| Tarjeta Mugi gazte (15 hasta cumplir 25 años). 51 o más viajes | 0,00 |
| Nocturno | 2,10 |

Tanto la tarjeta Lurraldebus como la tarjeta Mugi están integradas dentro del Sistema Mugi. Ambas aportan los mismos be-

EK\CV GAO-I-2026-01079

beharrezkoa Lurraldebus txartela dutenek Mugi txartelagatik aldatzea.

Hiru Mugi txartel mota daude: anonimoa, arrunta eta kolektiboak. Kolektibo txartelak hobari espezifikoak ditu, aparteko saldoa, kargan. Honako kolektibo hauek daude:

1. Gazteen txartela G (6 urtetik 25 urte bete arte).

Iraungitzea: 18 urte betetzean. Handik aurrera, 2 urtean behin.

% 25eko hobaria du; hau da, hamar euroko diru-karga egitean, adibidez, 2,5 euro gehiago sartuko dira txartelean, guztira 12,50 €.

6 eta 12 urte bitarteko adingabeek (6 urtetik aurrera eta 12 urte bete arte) doan bidaiatzen dute Mugi garraio sisteman txartel honekin.

2. Adinekoen txartela A (65 urte edo gehiago).

Iraungitzea: 5 urte. Epe hori igarotakoan berritu beharko da.

% 108ko hobaria du; hau da, hamar euroko diru-karga egitean, adibidez, 10,8 euro gehiago sartuko dira txartelean.

3. Ezintasuna dutenen txartela E (% 65ekoa edo gehiago ala mugikortasun murrizketa: 7 puntu edo % 25a edo gehiago).

Iraungitzea: 2 urte. Epe hori igarotakoan berritu beharko da.

% 108ko hobaria du; hau da, hamar euroko diru-karga egitean, adibidez, 10,8 euro gehiago sartuko dira txartelean.

4. Txartel soziala S.

Iraungitzea: urte 1. Epe hori igarotakoan berritu beharko da.

% 108ko hobaria du; hau da, hamar euroko diru-karga egitean, adibidez, 10,8 euro gehiago sartuko dira txartelean.

5. FU20 (orokorra) eta FU50 (berezia) familia ugarien txartela.

Bi Familia Ugari mota daudenez, bi txartel mota daude: orokorra (FU20) eta berezia (FU50).

Kolektiboko txartelekin konbinatu ahal izango dira. Kasu horretan, diru-kargako hobaria kolektiboko txartel motari eta familia ugariaren motari dagokiona batuz ateratzen dena izango da.

Iraungitzea: familia ugariaren titulua iraungitzen den aldi berean iraungiko da. FU+ kolektiboen txartel konbinatuen kasuan, iraungitze-data izango da lehenengo iraungitzen denarena (kolektiboko-txartela edo Familia Ugariaren titulua). Epe hori igarotakoan berritu beharko da.

% 25eko (FU orokorra) edo % 100eko (FU berezia) hobaria du; hau da, hamar euroko diru-karga bakoitzean, adibidez, 2,5 euro edo 10 euro gehiago kargatuko dira. Adierazi den bezala, kolektiboko txartel bat familia ugariarekin konbinatzen bada, diru-kargako hobaria kolektiboko txartel motari eta familia ugariaren motari dagokiona gehituta ateratzen dena izango da. Adibidez:

G20 (G (Mugi gaztea) + FU20): % 50eko hobaria (% 25 + % 25).

S59 (S (Mugi soziala) + FU50): % 208ko hobaria (% 108 + % 100).»

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.3 artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.b) eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hondarribia, 2026ko otsailaren 13a.—Igor Enparan Araneta, alkatea. (1079)

neficios y, por tanto, no es necesario que las personas que tengan una tarjeta Lurraldebus la cambien por una Mugi.

Existen tres tipos de tarjeta Mugi: Anónima, Ordinaria y Colectivos. La tarjeta Colectivos cuenta con bonificaciones específicas, saldo extra, en la recarga. Existen los siguientes colectivos:

1. Tarjeta joven G (desde los 6 años hasta cumplir los 25).

Caducidad: al cumplir los 18 años; a partir de entonces cada 2 años.

Tiene una bonificación del 25 %; es decir, al realizar una recarga de diez euros, por ejemplo, se cargarán 2,5 euros extra, en total 12,50 €.

Los menores a partir de los 6 años y hasta cumplir los 12 viajan de forma gratuita en el sistema Mugi con esta tarjeta.

2. Tarjeta mayor A (65 años o más).

Caducidad: 5 años; habrá que renovar transcurrido dicho plazo.

Tiene una bonificación del 108 %; es decir, al realizar una recarga de diez euros, por ejemplo, se cargarán 10,8 euros extra.

3. Tarjeta personas con discapacidad E (65 % o más, o limitación de movilidad: 7 o 25 % o más).

Caducidad: 2 años; habrá que renovar transcurrido dicho plazo.

Tiene una bonificación del 108 %; es decir, al realizar una recarga de diez euros, por ejemplo, se cargarán 10,8 euros extra.

4. Tarjeta social S.

Caducidad: 1 año; habrá que renovar transcurrido dicho plazo.

Tiene una bonificación del 108 %; es decir, al realizar una recarga de diez euros, por ejemplo, se cargarán 10,8 euros extra.

5. Tarjeta familia numerosa F20-F50.

Existen dos tipos de tarjetas correspondientes a los dos tipos de Títulos de Familia Numerosa: general (F20) y especial (F50).

Podrán combinarse con las tarjetas de colectivo. En este caso la bonificación en la recarga será la que resulte de sumar la correspondiente al tipo de tarjeta de colectivo y al tipo de familia numerosa.

Caducidad: caducará al mismo tiempo que el Título de Familia Numerosa. En el caso de tarjeta combinadas FN+colectivo, la fecha de caducidad será la fecha de la que caduque primero (de la tarjeta de colectivo o del Título de Familia Numerosa). Habrá que renovar transcurrido dicho plazo.

Tiene una bonificación del 25 % (general) o del 100 % (especial); es decir, al realizar una recarga de diez euros, por ejemplo, se recargarán 2,5 o 10 euros extra. Como se ha indicado, si se combina una tarjeta de colectivo con familia numerosa, la bonificación en la recarga será la que resulte de sumar la correspondiente al tipo de tarjeta de colectivo y al tipo de familia numerosa. Ejemplos:

G20 (G (Mugi joven) + FN20): bonificación del 50 % (25 % + 25 %).

S50 (S (Mugi social) + FN50): bonificación del 208 % (108 % + 100 %).»

Contra el presente Acuerdo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en los artículos 112.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y 10.b) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Hondarribia, a 13 de febrero de 2026.—El alcalde, Igor Enparan Araneta. (1079)

EK\CV GAO-I-2026-01079